

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Guraso elkarteei zuzendutako 2023ko diru-laguntzak deitzen dituen Zuiako Udalaren Osoko Bilkuraren 2023ko maiatzaren 11ko erabakiaren laburpena

BDNS(Identif.): 696314.

Diru-laguntza orokorreki buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/696314>).

Lehenengoa. Onuradunak

Zuiako ikastetxe publikoetako gurasoen elkarteak (IGE) izango dira deialdi honen onuradunak. Erakunde onuradunek derrigorrezko hezkuntza ematen duten ikastetxeekin lotuta egon behar dute.

Bigarrena. Xedea

Ikasleen gurasoen elkarteentzako laguntzen deialdiaren helburua da haien esku-hartzea indartzea eta elkarteek antolatzen dituzten eskolaz kanpoko jarduerak, jarduera osagarriek eta opor jarduerak sortutako gastuen zati bat ordaintzea, eta baita ikasleen behar psikopedagogikoen gastu osoa ordaintzea ere. Izan ere, jarduera horiek eragin garrantzitsua dute ikasleen prestakuntza osoan eta, beraz, haien eskola arrakastan, eta gurasoen elkarten eta sistemaren beraren sostengurik gabe ezin litezke bideratu.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Udalaren Osoko Bilkurak 2023ko maiatzaren 11an onartu zituen diru-laguntzak eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Jarduera osagarriari eta eskolaz kanpokoei dagozkien gastu hauek Zuiako Udalaren 2023ko ekitaldiko gastuen aurrekontuko ondorengo partiden kargura egingo dira: 326.481.000 (18.000,00 euro) eta 326.481.060 (4.000,00 euro).

Laguntza psikopedagogikoari dagozkion gastuak Zuiako Udalaren 2023ko ekitaldiko gastuen aurrekontuko 326.481.070 partidaren kargura egingo dira. Gastu hau 16.000,00 eurokoa izango da.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

2022/2023 denboraldiko programa edo proiektuetarako eskaerak eta horiekin batera zazpi-garren oinarrian eskatzen diren agiriak aurkezteko epea 20 egun baliodunekoa izango da, ALHAOn deialdia argitaratu eta biharamunetik aurrera kontatzen hasita.

Seigarrena. Beste datu batzuk

Eskabidea zein deialdiaren oinarriak www.zuia.eus orrian (izapideak/dirulaguntzak) edo oinarrietan azaltzen dira.

Murgia, 2023ko maiatzaren 19a

Alkate-udalburua
UNAI GUTIERREZ URKIZA